

5. KANALAK

KLIKASI plataformak hainbat kanal erabiliko ditu bezero-segmentuetara iristeko (ikasleak, irakasleak, ikastetxeak eta administrazio publikoa), bai komunikaziorako, bai banaketarako, bai salmentarako. Kanal horien bidez erabiltzaileei gure balio-proposamena ezagutaraziko zaie.

1. Komunikazio-kanalak

KLIKASI plataformaren komunikazioa webgune ofizialaren eta sare sozialen bidez egingo da. Webguneak informazio nagusia, azalpenak eta demoak eskainiko ditu, eta sare sozialek (Instagram, Tiktok edo X) ikasleengana modu zuzen eta erakargarrian iristea ahalbidetuko dute, eduki labur eta bisualen bidez. Horrez gain, ikastetxeetan aurkezpenak egingo dira ikasle eta irakasleei plataformaren funtzionamendua azaltzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio-kanalak erabiliko dira ikastetxe publikoen artean zabalkundea egiteko.

2. Banaketa-kanalak

KLIKASI plataformaren banaketa webgunearen eta aplikazioaren bidez egingo da, edozein gailutik sarbidea bermatuz. Ikastetxeek ikasle eta irakasleei sarbide-kode bat emango diete, eta banaka ikasten duten erabiltzaileek online erregistroaren bidez sartuko dira. Horrez gain, unibertsitateek eta elkarte akademikoek kalitatezko edukiak igotzen lagunduko dute, plataformaren edukien aberastasuna eta fidagarritasuna bermatuz.

3. Salmenta-kanalak

Salmenta nagusiki ikastetxeen bidez egingo da, zuzendaritza-taldeekin hitzarmenak sinatuz. Ikastetxe publikoen kasuan, Eusko Jaurlaritzaren bidez kudeatuko da ordainketa; itunduetan, berriz, ikastetxeek beraiek ordainduko dute harpidetza. Banaka ikasten duten ikasleek, aldiz, online ordainketa-sistemen bidez, hala nola, bizum edo kreditu txartelekin egindako ordainketa digital seguruen bidez eskuratuko dute plataformarako sarbidea.

4. Salmenta ondorengo kanalak

Erabiltzaileen gogobetetasuna eta fidelizazioa bermatzeko, KLIKek laguntza-kanal desberdinak eskainiko ditu. Laguntza Zerbitzu Teknikoa (txat, arreta telefono edo email bidez) erabilgarri egongo da arazo teknikoak konpontzeko. Horrez gain, feedback inkestak eta hobekuntza-galdeketa egingo dira erabiltzaileen iritzia jasotzeko, eta tutorial laburrek eta bideo didaktikoek erabiltzaile berrien integrazioa erreztuko dute.